

Esandakoa irentsi behar

Koldo Sagasti

Pasa den igandean, Bolivian, hautetsontziek astindu ederra eman zioten Hego Amerikako oreka geostrategikoari. Evo Morales presidente ohia Argentinan erbesteratuta egonagatik, haren alderdiak, MASEk, (Sozialismorantzako Mugimendua) gehiengo zabal batez irabazi zituen presidentetzarako bozketak. Garaipenak hauspoa eman die kontinenteko proiektu ezkertiarrei, zapuztu egin du duela urtebete andetar herrialdeko oligarkia ultrakontserbadoreek AEBen babesarekin emandako estatu kolpea, eta isilarazi egin ditu orduan kolpistei baldintzarik gabeko babesa eman zieten hamaika ahots. Orain, hauteskondeek Moralesen gobernu ohiaren zilegitasuna berretsi dutenean, askok, baita Euskal Herrian ere, esandakoak irentsi beharko dituzte.

2019ko azaroan Jeanine Añez presidente interino kolpistak, Biblia eskuan eta Bibliaren izenean Boliviako presidentetza aldarrikatuz, bere burua izendatu zuenean, Europan eskuinetik eskuin muturrerainoko indarrek lelo berbera errepikatu zuten aho batez: hilabete lehenago herrialdeko zuzendaritza MASEko buruari eman zioten hauteskundeak iruzurra izan ziren, eta estatu kolpea normaltasunerako itzule-ra. Voxeko Hermann Tertschek «demokraziarako aldaketa» txalotu zuen Europako Parlamentuan, eta ultraeskuindarren tesiekin lerrokatuz PNVko Izaskun Bilbaok ere «hauteskunde iruzurra» leporatu zion Moralesi mintegi berean.

Ez da lehenengo aldia jeltzaleek, he-men demokrazia irakasgaiak ematen

dituztenek, nazioarteko foroetan jarre-ra atzerakoienekin bat egiten dutena. Hamaika aldiz daukagu ikusita; besteak beste, Venezuelako Juan Guaidori onespena eta harrera egin diotenean; euskal armagintzako enpresen eta Saudi Arabiaren arteko merkataritza harremanak zuritu dituztenean; edo Jerusalem Ekialdeko kolonia ilegalak hirigunearekin lotuko dituen *apartheid* tranbia babestu dutenean, bertan Beasaingo CAF enpresak esku hartzea duelako. Demokrata katamaloa badaramate ere, euren atzerriko politikek argi uzten dute lubakiko zein aldetan dauden.

Oraingo honetan, Boliviako bozketek nor bere lekuan jarri dute, eta batzuk popa bistan eta esandakoa irentsi beharrean. •

Kolore bat baino gehiago

Oihane Larretxea
de la Granja

Neskatila hark maiz eramaten zituen irakasleen oharra etxera. «Gehiegi hitz egiten du». Azken ilaratik lehenengora aldatua izan zen sarri, bazterrak nahasten zituelakoan. Berritsua, oso berritsua. Diziiplina apur bat bereganatu zuenean, hitzak paperean biltzen hasi zen. Idazteari ekin zion, ezin gelditu zezakeen jarioan. Poesia, istorio laburrak, burutazioak, krisiak, maite-minak. «Istoriok kontatu nahi ditut». Hitz zehatz baten faltan, halaxe azaldu zien guraso-

ei zer izan nahi zuen handitan. «Kazetaria izan nahi duzu?». Galdera hartan eman zion forma etorkizunari.

Bizipen asko eta urte mordo bat ondoren, neskatila emakume eginda, istorioak kontatzen segitzen du, modu profesionalean, ofizioz. Eta afizioz.

Egunero informatzeko erantzukizuna, libre, iritzia sustatu eta kalitatezko edukiak sortu. Erronka izugarria da, eta horretan datza bere edertasuna. Istoriok bat bilatu, erpinak aztertu, buelta bat eman eta irakurleekin konpartitu. Ze-

ren horrek guztiak ze zentzu du beste aldean inor ez badago?

Eta gurean, beste alde horretan, komunitate oso bat dago, sostengatu eta hauspotu gaituena GARA egunkariari dagokion gorria bueltatzeko. Kolore batek bere baitan biltzen duena asko da. Mundu bat. Bagoaz aurrera. “Barrualde” honetatik berritsua izateagatik zigortzen zuten neskatila harengan pentsatzen. Berak istorioak baino ez zituen kontatu nahi. 10.000 esker zuetako ba-koitzari. •